

## **Abenduaren 16ko 9/2005 FORU-ARAU, Toki Ogasunei buruzkoa (BAO Abenduaren 31koa)**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 2005.eko abenduaren 16ko osoko bilkuran, abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Araua, Toki Ogasunei buruzkoa, onetsi dutela eta nik neuk aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dudala jakinarazten dut, aplikatu zaien beharra duten hiritar, norbanako eta agintari guztiek zaindu eta zainaraz dezaten.

### **HITZAURRERA**

Toki Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren helburu berarekin sortzen da haren ondorengo foru arau hau, toki ogasunen baliabide sistema araupetzeko helburuarekin, alegia, sistema horrek aukera eman dezan, ikuspegi materialetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien finantza-autonomia eta -nahikotasunaren printzipioak gauzatzeko.

Aipaturiko 5/1989 Foru Arauari, logikoa denez, hainbat aldaketa egin zaizkio indarrean jarri zenetik, igarotako denboragatik, tributu kudeaketaren bilakaeragatik edota ezarritako hobekuntza teknikoengatik.

Hala ere, lege testu hartan diseinaturiko egituraren funtsak bere horretan dirau oraingo foru arauan. Hortaz, lau titulutan banaturik dago: ezarpen eremuari buruzkoa, toki ogasunen baliabideei buruzkoa, udalez gaindiko erakundeei buruzkoa eta toki erakunde txikiei buruzkoa. Haietatik bigarrena nabarmentzen da, garrantziagatik nahiz luzeragatik, foru arauaren 61 artikuluetatik 55 biltzen baititu.

Foru arau berri hau, batez ere, azken hilabeteetan eman diren bi arau berriren haritik egin da:

- Batetik, Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra onetsi da arestian, eta indarrean jarri denetik, tributu sistemaren berrikuntza eta hobekuntza sakona ekarri du.
- Bestetik, zorpetzeari buruzko arautegi berria onartu du estatuak, eta haren ondorioz Bizkaiko toki erakundeen finantza-autonomia txikiagoa da araubide orokorreko toki erakundeena baino; egoera horrek, bada, Ekonomia Itunaren 48. artikuluaen bosgarren paragrafoa ez betetzea dakar.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, bere 1. artikuluan xedatzen denez, Bizkaiko toki erakundeei aplikatu behar zaie, lurralde historiko honetako toki ogasunei buruzko arautegian ezarritakoaren arabera.

Hori dela eta, honako hau xedatzen du testu arauemaile honek 7. artikuluan -toki tributuen antolamenduaren iturriei buruzkoa-: Zergei buruzko Foru Arau Orokorra toki erakundeei aplikatuko zaie, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan berean jasotako berezitasunak aintzat harturik.

Aldi berean xedatzen denez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu-araubidearen eredura egokitu ahal izango dute arautegia, zerga-ordenantzen bitartez, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke Zergei buruzko Foru Arau Orokorren eduki materialaren aurkakoa.

Bestetik, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra ezarritakoaren arabera da, erabat, testu honetan erabilitako hizkera. Horren adibide garbiak dira berrikusteko prozedurei buruzko artikulua; prozedura horien artean, azpimarratzekoak dira berraztertze errekurtsoa eta administrazioarekiko diru erreklamazioa.

Lehenengoari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean zehazturikoaren arabera eratu da goitik behera, toki eremuari dagozkion berezitasunak aintzat harturik. Kontuan hartu behar da foru ogasunaren eremuan baino are garrantzi handiagoa duela errekurtsio honek toki ogasunaren eremuan, aldeztatik egin beharreko urrats bakarra eta, beraz, beharrezkoa baita administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jo nahi duen zergadunarentzat, eremu honetan administrazioarekiko diru erreklamaziorik ez da eta.

Eta, hain zuzen ere, erreklamazio horren arauketa da gure testu arauemailearen berritasunik handienetakoa. Artikulu bakar batek, 14.ak, garrantzi handiko aldaketa dakar: alde batetik, Bilboko udalerririk auzitegi ekonomiko-administratibo propioa izateko gaitasuna duela ezartzen du, eta, bestetik, beste udalerririk batzuek ere antzerako organo propioa izateko aukera izango dutela, baldin eta 75.000 biztanle baino gehiago badituzte eta Batzar Nagusiek onespenez ematen badute.

Beste berritasun txikiago batzuekin batera -hala nola tasen definizio berria, arautegi orokor berriaren arabera egokitu baita-, II. tituluko VII. kapitulua dugu aipamen berezia merezi dutenetako beste bat -kreditu eragiketei buruzkoa, alegia-, bai bere garrantzi ekonomikoagatik bai dakartzan aldaketengatik.

Arauaketa zehatzagoa eratzea aukeratu da; izan ere, argi eta garbi bereizi dira epe laburreko eta epe luzeko kreditu eragiketak, eta foru aldundiak azken hauek kontrolatzeko sistema bikoitza ezarri da. Hartara, 55. artikuluan, testuko luzeenetariko batean, ezartzen da zein kasutan behar duten finantza-eragiketek aldundiaren baimena eta noiz den nahikoa nahitaezkoa bai baina lotaraztekoa ez den txostena.

Azkenik, III. eta IV. tituluek -udalez gaindiko erakundeei eta toki erakunde txikiei buruzkoak, hurrenez hurren- aurreko arautegian ezarritako arauketa-modua mantentzen dute.

## **I. TITULUA APLIKAZIO EREMUA**

### **1. artikulua. Aplikazio eremua.**

Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturiko udalerriei, udalez gaindiko erakundeei eta udalerririk baino lurralde eremu txikiagoko gainerako erakundeei aplikatuko zaie honako foru arau hau.

## **II. TITULUA TOKI OGASUNEN BALIABIDEAK**

### **I. KAPITULUA BALIABIDEEN ZERRENDA**

#### **2. artikulua. Toki erakundeen baliabideen zerrenda.**

1. Honako baliabide hauek osatuko dute Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen ogasuna:
  - a) Beren ondaretik etorritako sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.
  - b) Tributu propioak -zergak, tasak eta kontribuzio bereziak, alegia-, baita oinarri edo kuoten gainean foru ogasunarentzat legeztatzekoak diren erreklarguak ere.
  - c) Tributu itunduetan, itundu gabeko tributuetan eta gainerako sarrera publikoetan dituzten partaidetzak.
  - d) Diru-laguntzak.
  - e) Prezio publiko moduan jasotakoak.

- f) Kreditu eragiketen emaitzak.
  - g) Beren eskumenen eremuan izandako isun eta zehapenen emaitzak.
  - h) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.
2. Toki erakundeek tributuen aplikazioari, sarrera publikoei eta zehatzeko ahalari buruzko eskumenak erabiliko dituzte, foru ogasunarentzat legez ezarritako onura-bideak izango dituzte, eta, behar denean, behar diren administrazio prozeduren arabera jardungo dute.
  3. Honen aurreko atalean ezarri diren xedeen ondoreetarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeetako Ogasunek Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aurreikusi diren onurabideak, bermeak eta ahalmenak izango dituzte.

## **II. KAPITULUA ZUZENBIDE PRIBATUKO SARRERAK**

### **3. artikulua. Definizioa.**

1. Honako hauek dira Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen zuzenbide pribatuko sarrerak: beren ondaretik eratorritako emaitza edo produktuak, haien izaera edozein delarik ere, edota jarauntsiaren, legatuaren edo dohaintzaren bitartez egindako eskuraketak.
2. Horri dagokionez, beren jabetzako ondasunek osaturikoa hartuko da toki erakundeen ondareztat, baita toki erakundeon titulartasunekoak diren eta balioztapen ekonomikoa izan dezaketen eskubide erreal edo pertsonalek osaturikoa ere, baldin eta ez batzuk ez bestiak erabilera edo zerbitzu publikoari loturik ez badaude.
3. Horrez gain, zuzenbide pribatuko sarreratzat hartuko dira toki erakundeen ondareko ondasunak herri jabaritik jaregin eta gerora salduz besterentzearen ondorioz lorturiko zenbatekoak, nahiz eta ordura arte administrazio emakidaren mendean izan. Kasu horietan, ondasunei jaregin aurreko azken emakidadunak lehentasunezko eskubidea izango du, ondasunok zuzenean eta enkante publikorik gabe eskuratzeko, berariazko legeriak bestelakorik xedatu ezik.
4. Edozein kontzeptu dela bide, herri jabariko ondasunetatik eratortzen diren sarrerak, berriz, ez dira inola ere zuzenbide pribatuko sarreratzat hartuko.

### **4. artikulua. Araubide juridikoa.**

Toki ogasunari dagozkion eta kapitulu honen barruan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko, zuzenbide pribatuko arau eta prozeduren arabera jokatu da.

### **5. artikulua. Sarrerak baliatzeko mugak.**

Ondare-ondasunak edo ondare-eskubideak besterendu edo kargatzearen ondorioz lorturiko sarrerak ezin izango dira erabili gastu arruntak finantzatzeko, bide publiko eraikiezinetan sobera geratu diren lurzatien edo udal zerbitzuetan ezin erabil daitezkeen efektuen kasuan izan ezik.

## **III. KAPITULUA TRIBUTUAK ETA ZUZENBIDE PUBLIKOKO BESTE SARRERA BATZUK**

### **1. ATALA ARAU OROKORRAK**

### **6. artikulua. Udal tributuek bete beharreko printzipio.**

Toki erakundeek foru arau honen arabera ezartzen dituzten tributuek ondoko printzipio hauek bete behar dituzte betiere:

- a) Toki erakundearen lurraldetik kanpo kokatu, garatu, sortu edo eginiko ondasun, jarduera, etekin edo gastuak ez kargatzea.
- b) Tributua ezartzen duen erakundearen lurraldetik kanpo egin edo buruturiko negozio, egintza edo egitateak halakotzat ez kargatzea, ezta lurralde horretan sortuak edo bertan betetzekoak ez diren ondasun, eskubide edo betebeharren erabilera edo eskualdaketa ere.
- c) Pertsonen joan-etorri eta kokapen askea nahiz ondasunen, kapitalen edota zerbitzuen joan-etorri askea errespetatu eta bermatzea, inolako bereizkeriarik sortu gabe, enpresen arteko lehiarako aukerak ezertan urritu gabe eta baliabideak esleitzean distortsiorik eragin gabe.

## **7. artikulua. Udal tributuen ordenamenduaren iturriak.**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra toki erakundeei aplikatuko zaie, foru arau honetan jasotako berezitasunak aintzat harturik.

Era berean, udal zergei buruzko foru arauetara eta halakoak garatzeko xedapenetara egokitu beharra izango dute toki erakundeek.

Zerga-ordenantzetan beren-beregi ezartzen denean aplikatuko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzeko ematen diren xedapenak.

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu-araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzapen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa.

## **8. artikulua. Elkarlana.**

1. Toki erakundeek eta foru aldundiak elkarlanean jardungo dute, berariazko hitzarmena sinaturik, tributuen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreraren aplikazioari dagokion guztian.
2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako elkarlana gauzatzeko, aipaturiko administrazioek betebeharrak hauek zango dituzte:
  - a) Eskatzen duten informazio guztia emango diote elkarri, eta, behar denean, horretarako interkomunikazio teknika ezarriko dute.
  - b) Zeinek bere egitekoak betetzeko behar duen laguntza edota haietariko edozeinek eskatzen dituen datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri, arau bidez ezartzen den eran eman ere.
  - c) Berehala jakinaraziko dizkiote elkarri, arau bidez ezartzen den eran jakinarazi ere, haietariko edozeinen tributuetarako eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideetarako garrantzitsuak diren eta ikuskapen zerbitzuen egiztapen- eta ikerketa-jardueren ondorioz agerian jartzen diren egitate guztiak.
  - d) Helburuak, sektoreak eta aukeraketa-prozedurak modu bateratu edo koordinatuan ikuskatzeko planak egin eta prestatu ahal izango dituzte.

Paragrafo honetan aurreikusitakoa gorabehera, bere horretan iraungo du zerga-informazioaren erabilera eta lagapena eraentzen dituen legezko araubideak.

3. Udalerriaren zuzenbide publikoko sarrerak direla-eta, udalerriaren lurraldetik kanpo ikuskapenik edo nahitaezko zerga-bilketaren alorreko jarduketarik egin behar izanez gero, toki erakundeak berak egingo ditu halakoak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan egitekoak badira, eta, gainerako kasuetan, ezarrita dauden edo aurrerantzean ezartzen diren lankidetzaren formulen arabera jokatu da, aplikatu beharreko legerian aurreikusitakoarekin bat etorritik.

### **9. artikulua. Zerga-onurak.**

Toki erakundeek, beren ahalmenak erabiliz eta foru arauen mugen baitan, zerga-onurak eman ahal izango dituzte beren tributu propioen alorrean, baldin eta beren aurrekontuen kontura ematen badituzte.

Horri dagokionez, beren lurralde mugapean halako zerga-onurak aplikatzeko modua orokorrean zehazten duen erabakia hartuko dute toki erakundeek. Erabaki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

### **10. artikulua. Errekarguak,berandutze interesak eta ordaintzeko berezitasunak.**

1. Udal zergen eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarreraren ordainarazpenean, errekarguak eta berandutze-interesak Foru Ogasunerako eskatzen diren kasu, modu eta kopuru beretan eskatu eta zehaztuko dira.
2. Zorrak ordaintzeko, Zergei buruzko Foru Arauan jasotakoak ez bezalako epeak ezarri ahal izango dituzte toki erakundeek beren ordenantzetan.
3. Zerga-ordenantzetan aurrez ikusita egonez gero, ez da berandutza-interesik eskatuko borondatezko epearen barruan ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskatu eta aldeko erabakia ematen denean, ordenantzan ezarritako baldintzen eta gainerako inguruabarren arabera, baldin eta zorrak aldi berean muga-eguna badute eta taldeka jakinaraztekoak badira, eta beren zenbateko osoa sortu diren ekitaldi berean ordaintzen bada.
4. Beren ordenantzetan ezarritakoari lotuz, toki erakundeek kuotaren %5era arteko hoberia ezarri ahal izango dute bai aldi berean muga-eguna duten zorrak finantza-erakunde batean helbideratzen dituzten zergapekoentzat, bai ordaintzeko aurreratzen dituztenentzat, bai zerga-bilketan laguntzen dutenentzat.

### **11. artikulua. Egintzak administrazio bidean berrikustea.**

1. Tributuak aplikatzeko egintza eta jarduketak edota tributu zehapenak ezartzekoak berrikusteko, honako prozedura hauek baliatu ahal izango dira, ondorengo artikuluetan xedatzen denaren arabera:
  - a) Berrikusteko prozedura bereziak.
  - b) Berraztertze errekurtsua.

Administrazioarekiko diru erreklamazioei dagokienez, halakorik izanez gero, 14. artikuluan xedaturikoaren arabera jokatu da.

2. Toki erakundearen zuzenbide publikoko gainerako sarreraren inguruko egintzak ere administrazio bidean berrikusi ahal izango dira, aurreko paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik.
3. Epai irmoaren bidez baieztaturiko egintza administratiboak ezin izango dira inola ere berrikusi.

### **12. artikulua. Egintzak berrikusteko prozedura bereziak: motak.**

Berrikusteko prozedura bereziak honakoak dira:

- a) Erabat deusezak diren egintzak berrikustea.
- b) Egintza deuseztagarriak kaltegarritzat jotzea.
- c) Errebokazioa.

- d) Okerren zuzenketa.
- e) Bidegabeko sarreren itzulketa.

### **13. artikulua. Berraztertze errekurtsoa.**

1. Tributuak aplikatzeko, zehapenak ezartzeko eta toki ogasunen zuzenbide publikoko gainerako sarrerak bideratzeko egintzen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio delako egintza eman duen organo berari, eta ez da haren aurka egiteko beste modurik izango.
2. Berraztertze errekurtsoa hilabeteko epearen barruan jarriko da, berrikusi nahi den egintza beren-beregi jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, edota ordaindu beharra duten zergadunen errolda edo matrikulak jendaurrean jartzeko epea amaitu eta biharamunetik.

Aldian aldiko mugaeguna duten eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, errekurtsoa ordainketa egiteko borondatezko aldian jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, aipatu aldia amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Berraztertze errekurtsoa jartzeak ez du etengo aurkaraturiko egintzaren betearazpena, horrek dakartzan legezko ondorioekin, ezta kuoten edo likidaturiko eskubideen, korrituen eta errekarrien bilketa ere, behar adinako bermeak ekarri ezik.

Hala ere, berraztertze errekurtsoa garaiz eta eraz jartzean eten egingo da aurkaraturiko egintzaren betearazpena, inolako bermerik jarri gabe eten ere, baldin eta zorra borondatezko ordainketa-epearen barruan bada edo errekurtsoa premiamendu probidentziaren aurka jarri bada. Bi kasuetan, betiere, borondatezko ordainketa-epearen amaieran, udal ordenantzetan zehazturiko zenbatekoaren parekoa edo txikiagoa izan beharko du zorraren zenbatekoak.

Tributu zehapenak ezartzeko egintzak automatikoki etengo dira errekurtsoa jartzearekin batera.

4. Errekurtsoari buruzko ebazpena hiru hilabeteko epearen barruan eman eta jakinaraziko da, errekurtsoa aurkeztu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Epea igaro eta ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da.

Presuntziozko ezespina gertatu arren, errekurtsoari buruzko ebazpena eman beharra dago.

5. Errekurtsoari buruzko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta hortik aurrera interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute zuzenean; horrek ez du baztertzeko, baina, administrazioarekiko diru erreklamazioa jartzeko aukera, hala aurreikusten den kasuetan.

### **14. artikulua. Administrazioarekiko diru erreklamazioak.**

1. Bilboko udalerrriak administrazioarekiko diru erreklamazioak ebazteko organoa izan dezake, baita 75.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek ere, baldin eta Batzar Nagusiek alde zuzena hartarako onespina ematen badute. Organo horrek, edonola ere, berezitasun hauek izango ditu:

- a) Organoaren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua, baita erreklamazioak bideratzeko prozedura ere, osoko bilkuran onetsitako erregelamenduaren bidez arautuko dira, eta, betiere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz; dena den, organoaren jardun- eta funtzionamendu-eremuaren arabera beharrezkoak diren egokitzapenak egin ahal izango dira.

- b) Udalerriek sorturiko ebazpen organoak eginkizun hauek izango ditu:

- tributu propioak, zehapenak eta zuzenbide publikoko gainerako sarrerak direla-eta toki erakundeek ematen dituzten egintzen aurkako erreklamazioez arduratu eta haiei buruzko ebazpena ematea, udalaren eskumenekoak badira;
  - zerga-ordenantzen proiektuei buruzko irizpena ematea;
  - zerga-alorreko udal organo eskudunek eskatuz gero, gai honi buruzko azterketak eta proposamenak egitea.
- c) Erreklamazioari buruzko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka egiteko, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea besterik ez dago.
2. Administrazioarekiko diru erreklamazioak ebazteko organoa duten erakundeek kasuan, aurreko artikuluan aipaturiko berraztertze errekurtsua aukerakoa izango da.

### **15. artikulua. Zerga-ordenantzen edukia.**

1. Honako foru arau honetan aipatzen diren tributuak ezarri, arautu eta mantentzeko beharrezkoak diren zerga-ordenantzek eduki hauek izango dituzte, gutxienez:
- a) Zerga-egitatea, zergapekoa, arduradunak, salbuespenak, txikipen eta hobariak, zerga-oinarria eta oinarri likidagarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta sortzapena zehaztu beharko dituzte.
  - b) Aitorpena eta sarrera egiteko araubideak.
  - c) Onespenaren data eta aplikatzen hastekoa.
2. Horrez gain, foru arau honen 7. artikulua 2. paragrafoan aipaturiko arauak jaso ahal izango dira zerga-ordenantza hauetan, beharrezkoa bada.

Zerga-ordenantza hauek onesteko erabakiak eta dagozkien tributuak ezartzekoak batera hartu beharko dira.

Zerga-ordenantzak aldatzeko erabakietan, bestetik, ukituriko arauen idazkera berria eta aldaketaren onespenaren data nahiz bera aplikatzen hastekoa jaso beharko dira.

### **16. artikulua. Zerga-ordenantzen gertaketa, argitalpena eta publizitatea.**

1. Toki korporazioek beren tributuak ezarri, ezabatu edo antolatze hartzen dituzten behin-behineko erabakiak, edota dagozkien tributu kuotak zehazteko behar diren elementuak finkatzeko hartzen dituztenak, baita zerga-ordenantzen onespen eta aldaketak ere, zein bere erakundearen iragarki oholean erakutsiko dira hogeita hamar egunez; epe horren barruan, interesdunek espedientea aztertze eta bidezkotzat hartzen dituzten erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.
2. Toki erakundeek, edonola ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dituzte erakusketa-iragarkiok. Horrez gain, hamar mila bizilagunetik gorako zuzenbidezko biztanleria duten erakundeek lurralde historiko honetan gehien saltzen diren egunkarietako batean argitaratu behar dituzte e iragarkiak.
3. Iragarkiak jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan, bidezkoak diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte toki korporazioek, aurkezturiko erreklamazioak ebazteko, halakorik bada, eta ordenantzen behin betiko testua, hura indargabetzea edo behin-behineko erabakian aipatzen diren aldaketak onesteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa izandako erabakia behin betikotzat hartuko da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango osoko bilkurak erabakia hartzea.

4. Edonola ere, bai aurreko paragrafoan aipaturiko behin betiko erabakiak, kategoria horretara automatikoki igarotzen diren behin-behineko erabakiak barne, bai ordenantzen edo beren aldaketan testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira, eta ez dira indarrean jarriko harik eta argitalpen hori gauzatu arte.
5. Hogeita mila bizilagunetik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietan, bertako tributuak arautzen dituzten zerga-ordenantzen testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lauhilekoaren barruan.

Edonola ere, argitaraturiko zerga-ordenantzen kopiak eman beharko dizkiote toki erakundeek eskatzen dituen

#### **17. artikulua. Behin-behineko erabakien aurkako erreklamazioa jartzeko interesdun direnak.**

Aurreko artikulua 1. paragrafoan xedatutakoari dagokionez, ondokoak hartuko dira interesduntzat:

- a) Zuzeneko interesa dutenak edo erabakiok ukitzen dituztenak.
- b) Lanbidearen, ekonomiaren edo auzotarren interesak zaintzeko legez eraturik dauden elkargo ofizial, ganbera ofizial, elkarte eta gainerako erakundeak, zein berari dagozkion interesen defentsan ari direnean.

#### **18. artikulua. Zerga-ordenantzen aurkako errekurtsioak.**

1. Zerga-ordenantzetan bertan aurreikusiko da zein epetan zehar izango diren indarrean, dela epe mugatua zein mugagabea. Haien aurka egiteko, administrazioarekiko auzi errekurtsioa besterik ezin da jarri, ordenantzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, eta betiere jurisdikzio horri buruzko arauetan ezarritako era eta epeak errespetatuz.
2. Udalaren erabakiak edo zerga-ordenantzen testua epai irmoaren bitartez deuseztatu edo aldatuz gero, korporazioa beharturik egongo da epaia jakinarazten zaion egunaz geroko jarduketa guztiak epaiaren arabera egokitzea.

Ordenantza bat deuseztatu edo aldatzen bada, ordura arte haren babespean emandako egintza irmo edo onetsiak bere horretan mantenduko dira, epaiak berariazko debekua ezarri ezik.

#### **19. artikulua. Erantzukizuna alkar-poderosoaren edo testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsietan.**

Alkar-poderosoaren edo testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsietan, bera erabili bitartean, testamentu-ahalordearen menpeko jarauntsi-erkidegoari dagozkion tributu zorren nahiz zuzenbide publikoko gainerakoaren erantzule subsidiarioa izango da administratzailea.

## **2. ATALA ZERGA**

#### **20. artikulua. Zergen zerrenda.**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek ondoko zerga hauek eskatu beharko dituzte, zerga horiek arautzen dituzten arau eta xedapenen arabera eskatu ere:
  - a) Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
  - b) Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga.
  - c) Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga.



Toki erakundeek zerga horiei buruzko foru arauetan aitortzen zaizkien ahalmenak erabiltzea erabakiz gero, beren-beregiko erabakia hartu eta berariazko zerga-ordenantza onartu beharko dute.

2. Horrez gain, lurralde historiko honetako toki erakundeek ondoko zerga hauek ere ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, foru arau honetan ezarritako printzipioen markoan eta direlako zerga horiek ezartzeko erabakia hartu eta beraiei buruzko zerga-ordenantzak onetsi ondoren:
  - a) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
  - b) Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga.

### **3. ATALA TASAK**

#### **21. artikulua. Zerga-egitatea.**

1. Toki erakundeek, foru arau honetan ezarritakoaren arabera, tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik, edota zergapekoei dagozkien edo haientzat eragin nahiz onura berezia dakarten zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egiteagatik, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek ez badira zergapekoek beraiek borondatez eskatu edo jasotakoak, edota sektore pribatuak halako zerbitzu edo jarduerarik egiten ez badu.  
...
2. Bestetik, jarduera administratiboa edo zerbitzua zergapekoak zuzenean edo zeharka sorrarazitakoa denean ulertuko da delako jarduera edo zerbitzu hori zergapekoari dagokiola edo haren gainean eragina duela, hau da, zergapekoaren egite edo ez-egiteen ondorioz halako toki erakundea jarduera edo zerbitzuok ofizioz egitera beharturik dagoenean, dela segurtasunagatik, osasungarritasunagatik, biztanleriaren hornikuntzagatik, hirigintzagatik edo beste edozein arrazoiengatik.
3. Goiko 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, toki erakundeek tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko herri jabariaren edozein erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatik, eta bereziki honako hauengatik:
  - a) Tokiko herri jabariko lurretatik harea eta bestelako eraikuntza-gaiak ateratzea.
  - b) Toki erabilera publikoko lurretan elur putzuak edo euri urak biltzeko patin edo uraskak egitea.
  - c) Bainuetxeak eta bestelako ur-gozamenak, herri uren erabilera arruntaz gainekoak.
  - d) Erretenak eta antzeko beste instalazio batzuk toki erabilera publikoko lurretan isuri eta hustea.
  - e) Toki erabilera publikoko lurren zorupea okupatzea.
  - f) Toki erabilera publikoko lurretan zangak, laginketak eta zulaketak egitea, are errepide, bide eta tokiko gainerako herri bideetan ere, hodiak, eroanbideak eta beste instalazio batzuk instalatu eta konpontzeko, baita herri bidean zoladuraren edo espaloien edozein erauzketa egitea ere.
  - g) Toki erabilera publikoko lurrak salgaiekin, eraikuntza-gaiekin, obra-hondakinekin, hesiekin, zurkaitzekin, astoekin, aldamiokin eta antzerako beste instalazio batzuekin okupatzea.

- h) Ibilgailuak espaloietatik sartzea eta herri bideetan aparkaleku eskusiboa nahiz ibilgailuen geralekua izateko edota era guztietako salgaien zamalanak egiteko erreserbak egitea.
  - i) Tokiko edozein herri bideren zorua edo zorupea okupatzen duten burdin sare, argi zulo, haizebide, sarrerako ate, zamaketa-aho edo antzeko elementuak jartzea, soto edo erdisotoetarako argiak edo aireztapena jartzeko, edota pertsonen nahiz gaien sarbidea egiteko.
  - j) Tokiko edozein herri bideren gaineko hegadan eraikuntza elementu itxiak, terrazak, begiratokiak, balkoiak, markesinak, olanak, haize-babesak edo antzeko instalazioak jartzea, bai herri bidearen gainean hegada eginez ateratzen direnak bai fatxada-lerrotik irteten direnak.
  - k) Energia elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein jariakin eramateko, herri bideetan nahiz tokiko herri jabariko beste lur batzuetan jartzen diren edo haien gainetik hegan doazen hariteria, hodi eta galeriak, baita lineak eratzeko zutoinak, kableak, horma-besoak, ainguraketa-, banaketa- edo erregistro-kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikorako aparatuak eta antzerako beste batzuk ere.
  - l) Toki erabilera publikoko lurretan mahaiak, aulkiak, tribunak, oholtzak eta antzeko beste elementu batzuk jartzea, irabaziak lortzeko asmoz.
  - m) Herri bideetan kioskoak jartzea.
  - n) Toki erabilera publikoko lurretan saltokiak, barrakak, salmenta, ikuskizun edo jolasetarako etxolak jartzea, baita kaleko industriak, industria ibiltariak eta zine-filmaketak ere.
  - ñ) Portaleak, erakustokiak eta erakusleioak.
  - o) Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren menpean ez dauden ibilgailuen errodata eta arrastea.
  - p) Herri bideetatik edo tokiko herri jabariko lurretatik abereak igarotzea.
  - q) Tokiko herri bideetan lurrei eusteko hormak, eraikuntzak edo hesiak jartzea, behin betikoak nahiz behin-behinekoak.
  - r) Toki erabilera publikoko lurretan erregaien eta, oro har, beste edozein gai edo salgaiaren biltegiak edo halakoak banatzeko aparatuak jartzea.
  - s) Tokiko herri jabariko lurak okupatzen dituzten iragarkiak instalatzea.
  - t) Errepide, bide eta tokiko gainerako herri bideetan bidepeko erretenak eta areka edo lubeta gaineko igarobideak egitea, edozein motatako ibilgailuetarako edo abereak igarotzeko.
  - u) Trakzio mekanikozko ibilgailuak udalerrietako bideetan aparkatzea, berariaz zehazten diren zonen barruan eta ezartzen diren mugak errespetatuz.
4. Goiko 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, toki erakundeek tasak ezarri ahal izango dituzte toki eskumeneko edozein zerbitzu edo jarduera administratibo egiteagatik, eta bereziki honako hauengatik:
- a) Interesdunak eskaturik, tokiko administrazio edo agintariek luzatzen dituzten edo beren ardurapekoak dituzten agiriak.
  - b) Plaka, patente eta antzerako bereizgarrietan toki erakundearen armarrria erabiltzeko baimena.

- c) Autotaxi eta akurako gainerako ibilgailuetarako lizentzia edo baimen administratiboak ematea.
- d) Landa-zaintza.
- e) Herri ahotsa.
- f) Establezimenduen zaintza berezia, establezimenduek beraiek eskaturik.
- g) Ikuskizun publikoak edo garraio handiak egiteko, karabanak igarotzeko edo gisa horretako beste edozein jarduera burutu ahal izateko bereiziki beharrezkoak eta toki eskumenekoak diren zerbitzu bereziak.
- h) Lurzoruaren eta hiri-antolamenduaren legediak eskatzen dituen hirigintzako lizentziak ematea edo kontroleko administraziojarduerak egitea, lizentzia eskatu beharrean erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen denean.
- i) Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea edo kontroleko administrazio-jarduerak egitea, lizentzia eskatu beharrean erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen denean.
- j) Industria eta merkataritzako establezimenduetako ibilgailuak, lurrin galdarak, motorrak, transformadoreak, igogailuak, karga-jasogailuak eta antzerako aparatu nahiz instalazioak ikuskatzea.
- k) Suteak galarazi eta itzaltzeko zerbitzuak, aurrien prebentziokoak, eraikuntza eta eraispinak, salbamenduak eta, oro har, pertsonak eta ondasunak babesteko zerbitzuak; haien barnean sartzen dira zerbitzua mantentzea eta zerbitzuari atxikitako makina eta tresnen erabilera lagatzea (eskalak, upak, motoponpak, txalupak eta abar).
- l) Osasun ikuskapeneko zerbitzuak, analisi kimiko, bakteriologiko eta antzerakoak egiteko zerbitzuak, eta, oro har, toki erakundeen laborategiek nahiz osasun eta higieneko beste edozein establezimenduk emandako zerbitzuak.
- m) Prebentzioko osasun zerbitzuak, desinfektatze, intsektu-kentze eta arratoi-garbiketako zerbitzuak, edota gai eta produktu kutsagarriak nahiz osasun publikorako kaltegarriak diren germenak zabaltzen dituztenak suntsitzeko zerbitzuak, etxean-etxean edo enkarguz eginak.
- n) Ospitale, klinika, sendategi mediko, kirurgiko, psikiatriko edo berezi, anbulatorio, suspertu eta indarberritzeko zentro, eta osasun anbulantzietan emandako laguntzak nahiz beraietan egindako egonaldiak eta antzeko beste zerbitzu batzuk, baita toki erakundeen ongintza edo laguntzako establezimenduetan egindakoak ere, gastuak edozein motatako beste erakunde batzuek ordaindu beharrekoak izan zein ez izan.
- ñ) Zahar-etxe eta zaharren egoitzetan, haurtzaindegietan, aterpeetan eta antzeko beste establezimendu batzuetan emandako laguntzak nahiz halakoetan egindako egonaldiak.
- o) Bainuetxeak, dutxak, igerilekuak, kirol instalazioak eta antzeko beste zerbitzu batzuk.
- p) Tokiko hilerriak, gorpuak eroatea eta toki izaerako beste hileta-zerbitzu batzuk.
- q) Toki erakundeen titulartasuneko zutoin edo zerbitzu galerietan hodiak, hari eroaleak eta kableak jartzea.
- r) Estolda-zerbitzuak, baita hondakin urak tratatu eta araztekoak ere, estolda partikularren zaintza berezia barne delarik.
- s) Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta ezabatzea, putzu beltzak eta kale partikularrak garbitzea.

- t) Ura, gasa eta elektrizitatea banatzea eta beste hornikuntza-zerbitzu publiko batzuk - lineei lotzeko eskubideak eta kontagailuak edo antzeko instalazioak jarri eta erabiltzekoak barne direlarik-, zerbitzu edo hornikuntza horiek toki erakundeek egiten dituztenean.
  - u) Hiltegi-, lonja- eta merkatu-zerbitzuak, baita haragiak garraiatzekoak ere, halakorik nahitaez egin behar bada; eta hornidura kontuotarako ikuskapen zerbitzuak, pisatu eta neurtzeko tresnen erabilera barne.
  - v) Toki erakundeen ikastegietan emandako irakaskuntza bereziak.
  - w) Museoak, erakusketak, liburutegiak, monumentu historiko edo artistikoak, parke zoologikoak nahiz antzeko zentro edo lekuak bisitatzea.
  - x) Tokiko zutabe, kartel eta antzeko bete instalazio batzuk erabiltzea, iragarkiak jartzeko.
  - y) Herri bideetan harea botatzea, norbanakoek eskaturik.
  - z) Ibilgailuen zirkulazioa errazteko, hiri trafikoa antolatu eta kontrolatzeko jarduera bereziak egitea, Udaltzaingoak egin ohi dituen trafiko antolaketaz eta seinaleztapenez gain.
5. Artikulu honen 4. zenbakian aipatzen diren zerbitzu publikoen prestazioagatik jasotzen diren nahitaezko kontraprestazio ekonomikoak, zuzenean pertsonifikazio pribatu baten bidez edo zeharkako kudeaketaren bidez egindakoak, tributu izaerarik gabeko ondare-prestazio publikotzat hartuko dira, Konstituzioaren 31.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Zehazki, halakotzat joko dira obren ustiapenagatik edo zerbitzu-prestazioarengatik eskatzen direnak, emakida-araubidean edo ekonomia mistoko sozietateen, enpresa-erakunde publikoen, kapital-sozietate publikoen eta zuzenbide pribatuko gainerako formulen bitartez.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 103. artikuluan ezarritakoa gorabehera, atal honetako kontraprestazio ekonomikoak ordenantza bidez arautuko dira. Ordenantza hori onesteko prozeduran, toki-erakundeek nahitaezko txostena eskatuko diete ordenamendu juridikoaren arabera haiengan esku-hartzeko ahalmena duten administrazio juridikoei.

## **22. artikulua. Kargapean ez dauden kasuak edota salbuetsita daudenak.**

1. Toki erakundeek ezin izango dute tasarik eskatu honako zerbitzu hauengatik:
  - a) Herri iturrietako uren hornidura.
  - b) Herri bideetako argiak.
  - c) Herri zaintza, oro har.
  - d) Babes zibila.
  - e) Herri bideen garbiketa.
  - f) Nahitaezko hezkuntza-mailetako irakaskuntza.
2. Herri administrazioek ez dute herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egitearen ondoriozko tasarik ordaindu beharrik izango zuzenean ustiatzen dituzten komunikazioetako zerbitzu publikoei datzekien aprobetxamenduengatik, ezta herri segurtasunean edo nazioaren defentsan berehalako eragina dutenengatik ere.

### **23. artikulua. Kontribuzio bereziekiko bateragarritasuna.**

Zerbitzuak egitearen ondoriozko tasek ez dute baztertzen zerbitzuok ezarri edo gehitzeagatik kontribuzio bereziak ordainarazteko aukera.

### **24. artikulua. Zergapekoak.**

1. Pertsona fisiko nahiz juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3. artikuluan aipaturiko erakundeak dira tasen zergapekoak, zergadun diren adinean izan ere:
  - a) Tokiko herri jabaria norberaren onurarako gozatu, erabili edo bereziki aprobetxatzen badute, foru arau honen 21. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako kasuetariko baten baten arabera.
  - b) Toki erakundeek egiten dituzten zerbitzu edo jardueretariko baten bat eskatzen badute edota haien onura edo eragina jasotzen badute, foru arau honen 21. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako kasuetariko baten baten arabera.
2. Zergadunaren ordezkioak hauek izango dira:
  - a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onurarik edo eraginik dakarkieten zerbitzu edo jardueren ondoriozko tasetan, higiezin horien jabeak; egokituz gero, jabeek onuradunei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
  - b) Lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko arautegian aurreikusitako hirigintza-lizentziak ematearen ondoriozko tasetan, obren eraikitzaile eta kontratistak.
  - c) Suteak galarazi eta itzaltzeko zerbitzuak, aurrien prebentziokoak, eraikuntza eta eraispenak, salbamenduak eta, oro har, pertsonak eta ondasunak babesteko zerbitzuak egiteagatik ezarritako tasetan -halakoen barnean sarturik dago zerbitzua mantentzea-, arriskua aseguratzen duten erakunde edo sozietateak.
  - d) Ibilgailuetarako sarbideak eginik, espaloiak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo bereziki aprobetxatzeagatik, eta horrelako sarbideak egiteagatik, mantentzeagatik, aldatzeagatik edo kentzeagatik ezarritako tasetan, ibilgailuen sarbide horiek dauzkaten finka eta lokalen jabeak; egokituz gero, jabeek onuradunei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

### **25. artikulua. Zerga-kuota.**

1. Tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteagatik aurreikusitako tasen zenbatekoa ondoko erregela hauen arabera zehaztuko da:
  - a) Oro har, ukituriko ondasunak herri jabarikoak ez balira erabilera edo aprobetxamendu horretatik eratorritako onurak merkatuan izango lukeen balioa hartuko da erreferentziazat. Horretarako, onuraren merkatu-balioa zehazteko irizpide eta parametroak ezarri ahal izango dituzte zerga-ordenantzek kasu bakoitzean, erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren izaera espezifikokoaren arabera.
  - b) Lizitazio publikoaren prozedurak erabiltzen badira, emakida, baimena edo adjudikazioa lortzen duen proposamenaren balio ekonomikoaren arabera izango da tasaren zenbatekoa.
  - c) Udal bide publikoetako zoruari, zorupean edo haien gaineko hegadan eraturiko erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezien ondoriozko tasen kasuan, baldin eta interes orokorreko hornidura-zerbitzuak edota auzotarren gehiengoa edo kopuru garrantzitsu bat ukitzen duten hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko erabilera edo aprobetxamenduak badira, aipaturiko enpresek udal mugarte bakoitzean urtean lortzen duten fakturaziotik eratorritako diru-sarrera gordinen 100eko 1,5ekoa izango da tasen zenbatekoa, beti eta salbuespenik gabe.

Horri dagokionez, halako zerbitzuak banatu edo merkaturatzen dituzten enpresak hartuko dira zerbitzuon ustiatzailetzat.

Sakelako telefonoen zerbitzuak ez dira sartuko tasa zenbatekotzeko araubide berezi honetan.

Honako c) idatz-zati honetan aipaturiko enpresa guztiei aplikatuko zaie zenbatekotzeko araubide berezi hau, bai hornidurak egiteko sareen titularrak direnei, bai, sareen titularrak ez izan arren, haiek erabiltzeko, haietan sartzeko edo haiei lotzeko eskubideen titular direnei.

Idatz-zati honetan xedatutakoari dagokionez, honako hauek hartuko dira fakturaziotik eratorritako sarrera gordintzat: erakunde batek udalerri bakoitzean egindako zerbitzuen ordainean jaso dituen sarreretatik berari egotzi ahal zaizkionak.

Horri dagokionez, ez dira sarrera gordinetan sartuko egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta, hirugarrenen kontura kobraturikoak izanik, tasa zenbatekotzeko araubide berezi hau aplikatzen zaion erakundearen sarrera propiotzat hartu ezin diren partida edo kopuruak ere. Era berean, ez dira fakturazioko sarrera gordinetan sartuko Ekonomia Ministerioko Energia Elektrikoa Ekoizteko Instalazioen Erregistro Administratiboaren 1. edo 2. atalean inskribaturiko instalazioetan erabiltzekoak diren hornidura-zerbitzuengatik jasotzen diren kopuruak, baldin eta hornituriko lehengaia araubide berezi honen menpeko zerga-ordainketari loturiko energia sortzeko beharrezkoa bada.

Zerbitzuak hornitzeko besteren sareak erabiliz gero, beste enpresa horiei haien sareei lotzeagatik edo haien sareetan sartzeagatik ordaindutako kopuruak kenduko dituzte enpresa erabiltzaileek fakturazioko sarrera gordinetatik. Halako sareen titularrak diren enpresek fakturazioko sarrera gordin gisa konputatu behar dituzte kontzeptu horrengatik jasotako kopuruak.

Araubide berezi hau aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa ezin jasanaraz dakieke c) idatz-zati honetan aipaturiko hornidura-zerbitzuen erabiltzaileei.

Honako c) idatz-zati honetan araupeturiko tasak bateragarriak dira toki eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezartzen diren beste tasa batzuekin, letra honetan aipatutako enpresak halako tasen zergapeko badira foru arau honen 24.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, baina tasa hau ordaintzen duenari ezin ordainaraz dakioke udal bide publikoetako zoruan, zorupean edo haien gaineko hegadan eraturiko erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezien ondoriozko beste tasarik.

2. Oro har, eta aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, zerbitzu bat edo jarduera bat egiteagatik ezarritako tasen zenbatekoa ezin izan daiteke, osotasunean harturik, delako zerbitzu edo jardueraren benetako kostua edo aurreikusten den kostua baino handiagoa, ezta, halakorik ezean, jasotako prestazioaren balioa baino handiagoa ere.

Zenbateko hori zehazteko, zuzeneko nahiz zeharkako kostuak hartuko dira kontuan, are finantza-kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, behar denean, tasapeko zerbitzu edo jardueraren mantentze eta arrazoizko garapena bermatzeko beharrezkoak direnak ere, zenbatekoa ordaintzen duen erakundea edo aurrekontua edozein delarik ere. Hortaz, organo eskudunak onetsitako aurrekontu eta proiektuaren arabera kalkulatu da zerbitzu edo jardueraren mantentze eta arrazoizko garapena.

3. Zerga-kuota ondoko hauetariko bat izango da, berariazko zerga-ordenantzetan xedatzen denaren arabera:
  - a) tarifa bat ezartzearen ondoriozko kopurua;
  - b) berariaz zehazturiko kopuru finkoa, edo

- c) prozedura biak batera aplikatzearen ondoriozko kopurua.
- 4. Tasen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartu ahal izango dira haiek ordaindu behar dituzten subjektuen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide generikoak.
- 5. Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak tokiko herri jabariko ondasuna suntsitzea edo hondatzea badakar, onuraduna beharturik egongo da ondasun hori berreraiki edo konpontzeko gastuen kostu osoa ordaintzera eta aurretik kopuru hori gordailutzerara; horrez gain, dagokion tasa ordaindu beharko du.

Kalteak ezin konponduzkoak izanez gero, suntsituriko ondasunen balioa edo egindako kalteen zenbatekoa adinako kalte-ordaina eman beharko zaio erakundeari.

Toki erakundeek ezin barka ditzakete paragrafo honetan aipaturiko kalte-ordain edo ordainketak, ez osorik ez zati batez.

## **26. artikulua. Tasak ezartzeko erabakiak: txosten tekniko-ekonomikoa**

Txosten tekniko-ekonomikoak ikusirik hartu beharko dira jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen ondoriozko tasak ezartzeko erabakiak nahiz zerbitzu berriak osorik edo zati batez finantzatzekoak; txosten horietan, agerian jarriko da halako zerbitzuen merkatu-balioa edo haien kostua nola estaliko aurreikusten den, hurrenez hurren.

Ez da aurreko lerroaldean aipatzen den txosten tekniko-ekonomikoa behar errebalorizazio edo eguneratze orokorrek eragindako erabakiak hartu nahi badira, ez eta tasen zenbatekoa gutxiti nahi denean ere, salbu eta haiei dagozkien zerbitzuen kostua nabarmen gutxituko denean.

## **27. artikulua. Sortzapena.**

- 1. Zerga-egitatearen izaeraren arabera eta berariazko zerga-ordenantzetan xedatzen denarekin bat etorriz, tasak une hauetan sortu ahal izango dira:
  - a) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten den unean, edota zerbitzua edo jarduera egiten hasten den unean; kasu bietan, baina, tasaren zenbateko osoa edo partziala alde aurretik gordailutzeko eskatu ahal izango da.
  - b) Jarduerari edo espedienteari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten den unean; jarduera ez da hasiko eta espedientea ez da izapidetuko harik eta egin beharreko ordainketa egin arte.
- 2. Tasaren izaera materialak haren aldizkako sortzapena badakar, eta berariazko zerga-ordenantzaren hala zehazten bada, sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du bera baitan, erabilera pribatiboa, aprobetxamendu berezia edo zerbitzu nahiz jardueraren erabilera hasi edo amaitzen den kasuetan izan ezik, halakoetan inguruabar horren arabera doituko baita zergaldia, eta kuota proportzionalki hainbanatuko baita, berariazko zerga-ordenantzaren xedatzen denaren arabera.
- 3. Zergapekoari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, zerbitzu publikoa, jarduera administratiboa edo herri jabariaren erabilera edo aprobetxamendurako eskubidea egin edo gauzatu ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.
- 4. Aldian-aldian sortzen diren tasen kasuan, norik bere erregistro, errolda edo matrikulan egin beharreko izen-emateari dagokion likidazioa jakinarazi eta gero, multzoka egin ahal izango dira ondorengo jakinarazpenak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz.

## **28. artikulua. Kudeaketa.**

- 1. Toki erakundeek autolikidazio araubidean eskatu ahal izango dituzte tasak.

2. Toki erakundeek lankidetzeta-hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte tasen zergapekoak ordezkatzeko entitate, erakunde nahiz antolakundeekin, tasen ondoriozko betebeharrak formal eta materialak edota likidazio- edo bilketa-prozedurak errazteko.

#### **4. ATALA** **KONTRIBUZIO BEREZIAK**

##### **29. artikulua. Kontribuzio berezien ezarketa.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek, alde zuzenetik dagokien ordenantza ezartzeko eta onartzeko erabakia hartuta, zergapekoaren onura edo beraren ondasunen balioaren gehikuntza sortzen duten obrak burutzeko edo udal zerbitzuak ezartzeko zein gehitzeko kontribuzio bereziak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte.

##### **30. artikulua. Zerga-egitatea.**

Kontribuzio berezien zerga-egitatea, herri lanak egitearen edo zerbitzu publikoak ezarri nahiz gehitzearen ondorioz, zergapekoak onura edo ondasunen balioaren gehikuntza lortzean datza.

##### **31. artikulua. Toki mailako obra eta zerbitzu publikoak.**

1. Toki mailako obra eta zerbitzuetatik joko dira honakoak
  - a) Toki erakundeek, beren eskumenen barruan, egotzirik dauzkaten helburuak betetzeko egiten dituztenak, ondare ondasunen jabe gisa burutzen dituztenak izan ezik.
  - b) Toki erakundeek beste erakunde publiko batzuek egotzi edo eskuordetu dizkietelako egiten dituztenak eta legeriaren arabera titulartasuna bereganatu dutelako egiten dituztenak.
  - c) Beste erakunde publiko batzuek edo beren emakidadunek toki erakundearen ekarpen ekonomikoekin egiten dituztenak.
2. Ez dute udal mailako obra edo zerbitzu izaera galduko aurreko ataleko a) idatz-zatian sartuta daudenak, nahiz eta erakunde autonomiadunek edo sozietatearen kapitala oso-osorik toki erakunde batena duten merkataritzako sozietateek, udal ekarpenak dituzten emakidadunek edo foru arau honetako 38. artikulua aipatzen dituen zergadunen administrazio elkarteek eginak izan
3. Kontribuzio berezien bidez bildutako zenbatekoak haiek eskatzeko xede izandako obra edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko bakarrik erabili ahal izango dira.

##### **32. artikulua. Zergapekoa.**

1. Kontribuzio berezien zergapekoak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3. artikulua aipatzen dituen erakundeak, baldin eta kontribuzioa ordaindu beharra eragiten duten obrak egitearen edo zerbitzuak ezarri zein gehitzearen ondorioz onura bereziak lortzen badituzte.
2. Honako pertsonak joko dira onuradun berezitatat:
  - a) Ondasun higiezinak ukitzen dituzten obrak egitearen edo zerbitzuak ezarri edo gehitzearen ondoriozko kontribuzio berezietan, ondasun horien jabeak.
  - b) Enpresa ustiatzearen ondorioz diren obrak egitearen edo zerbitzuak ezarri edo gehitzearen ondoriozko kontribuzio berezietan, beraien titular diren pertsonak edo erakundeak.



- c) Suhiltzaile zerbitzuak ezarri edo gehitzearen ondoriozko kontribuzio berezietan, tartean hartutako ondasunen jabeek gain, arlo honetako bere jarduera udal mugarte horretan burutzen duten aseguru-konpainiak.
- d) Lurpeko galeriak eraikitzearen ondoriozko kontribuzio berezietan, horiek erabili behar dituzten enpresa hornitzaileak.

### **33. artikulua. Zerga-oinarria.**

1. Kontribuzio berezien zerga-oinarria, gehienez, obrak burutzeagatik edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeagatik toki erakundeek jasan behar duten kostuaren %90ak osatzen du.
2. Kostu hori honako kontzeptuek osatuko dute:
  - a) Peritu-lanen, proiektuen idazketen eta obren, planen eta programa teknikoan zuzendaritzaren benetako kostua.
  - b) Egin beharreko obren edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeko lanen zenbatekoa.
  - c) Obra edo zerbitzuek iraunkorki okupatu beharko dituzten lursailen balioa, erabilera publikoko ondasunak, toki erakundeari doan eta nahitaez lagatako lursailak edo indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera lagatako higiezinak direnean izan ezik.
  - d) Eraikinen eraispengatik, landaketa, obra edo instalazioak desegiteagatik sortutako kalte-ordainak, baita eraitsi edo okupatuak izan behar diren ondasunen errentariei dagozkienak ere.
  - e) Obra edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, kontribuzio bereziek estaltzen ez duten zatia edo, haien zatikapen orokorraren kasuan, kontribuzio hauek estaltzen dutena finantzatzeko toki erakundeek kreditura jo behar dutenean.
3. Obra edo zerbitzuen aurrekontuaren kostu osoa aurreikuspen hutsa izango da. Benetako kostua aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa izanez gero, hura hartuko da dagozkion kuotak kalkulatzeko.
4. Foru arau honen 31.1.c) artikuluan aipatutako zerbitzuak edo obrak direnean edo artikulua bereko 2. paragrafoan aipatutako emakidadunek udal ekarpenekin egindakoak direnean, kontribuzio berezien zerga-oinarria ekarpen horien zenbatekoaren arabera zehaztuko da, obra edo zerbitzu bera dela-eta beste herri administrazio batzuek jarri ahal dutenaren kaltetan izan gabe. Edonola ere, artikulua honetako lehenengo atalean aipatzen den %90eko muga gordeko da.
5. Zerga-oinarria zehazteko, toki erakundeak jasandako kostutzat kostu osoaren zifrari toki erakundeak lortzen dituen diru-laguntzak edo sorospenen zenbatekoa kenduta ateratzen den kopurua hartuko da.
6. Aipatutako diru-laguntza edo sorospena kontribuzio bereziaren zergapeko batek emana izango balitz, horren zenbatekoa lehenik eta behin pertsona edo erakunde horren kuota konpentsatzeko erabiliko litzateke. Diru-laguntza edo sorospenaren balioa kuota hori baino handiagoa izanez gero, gaindikinak gainerako zergapekoen kuotak murriztuko ditu, hainbanaturik.

### **34. artikulua. Zerga-kuota.**

1. Kontribuzio berezien zerga-oinarria zergapekoen artean banatuko da, obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontuan hartuta, hurrengo arauen arabera:

- a) Orokorrean, higiezin fatxadako metro linealak, beraien azalera, beraien bolumen eraikigarria eta katastroko balioa batera edo bereizita ezarriko dira, banaketa-modulu gisa, Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ondorioetarako.
  - b) Suhiltzaile zerbitzua ezarri edo hobetzeko bada, zerga ezarri den udalerrian dauden ondasunengatik arriskua estaltzen duten erakunde edo sozietateen artean banatu ahal izango dira, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Zergapeko bakoitzari eskatu ahal zaion kuota berak bildutako primen zenbatekoaren %5 baino handiagoa izanez gero, soberakina hurrengo ekitaldietara eramango da guztiz amortizatu arte.
  - c) Honako foru arau honen 32. artikuluko 2.d) idatz-zatian aipatzen diren obren kasuan, kontribuzio bereziaren zenbateko osoa obrak erabili behar dituzten konpainia edo enpresen artean banatuko da, bakoitzari erreserbatutako tartearen arabera edo beraien dagokien atal osoaren proportzioan, berehalaxe erabiltzen ez badituzte ere.
2. Ezar daiteken arautegiak edo nazioarteko itunek zerga-onurak ematen dituztenean, onuradunei legozkiekeen kuotak ez dira gainerako zergadunen artean banatuko.
  3. Ordaindu beharreko kuota zehaztu ondoren, zergapekoak eskatuta, berau zatitzea edo geroratzea onar dezake korporazioak, gehienez bost urteko eperako.

### **35. artikulua. Sortzapena.**

1. Kontribuzio bereziak obrak burutzen diren unean edo zerbitzua ematen hasten den unean sortzen dira. Obrak zatigarriak izanez gero, sortzapena, zergapeko bakoitzarentzat, obraren tarte edo zati bakoitzari dagozkionak burutu direnetik sortuko da.
2. Aurreko atalean xedatutakoaren kalterik gabe, zerga ezarri eta antolatze erabaki zehatza onartu ondoren, kontribuzio bereziak aurretik ordaintzeko eskatu ahal izango du toki erakundeak, hurrengo urterako aurreikusitako kostuaren zenbatekoaren arabera. Ezin izango da urteko berri bat aurreratzeko eskatu, aurreko aurrerakina eskatzeko xede izan ziren obrak burutu ez badira.
3. Kontribuzio berezien sortzapen unea kontuan hartuko da foru arau honen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera ordaintzera behartutako pertsona zehazteko, antolamendurako erabaki zehatzean zergapeko gisa onarpen datan zergapekoa zena agertu eta beronek, artikuluko honen 2. atalean xedatutakoaren arabera, kuoten ordainketa aurreratu badu ere. Antolatze erabaki zehatzean zergapeko gisa agertu eta horren berri jaso duen pertsonak, erabakia onartzen denetik sortzapena gertatu bitarteko epean, zergapetzea eragiten duten ondasun edo ustiapenen gaineko eskubideak eskualdatzen dituztenean, eskualdatzearen berri eman beharko dio administrazioari, hilabeteko epean berau egiten den datatik zenbatuta, eta hala egiten ez badu, administrazio horrek kobratzeko egintza bideratu ahal izango du espediente horretan zergapeko gisa agertzen zenaren kontra.
4. Behin obren burutzapen osoa edo partziala amaitu ondoren edo zerbitzua ematen hasi ondoren, zergapekoak, oinarria eta behin betiko kuota banakatuak ezarriko dira, dagozkien likidazioak igorritik eta eginak izan diren ordainketa aurreratuak konturako emate gisa konpentsatuz. Behin betiko zehazte hori erakunde ezarleko organo eskudunek egingo dute, dagokion obra edo zerbitzurako tributua ordenatzeko erabaki zehatzaren arauak betez.
5. Ordainketa aurreratuak tributuen sortzapen-datan zergapeko izaera ez daukaten pertsonak egin badituzte edo dagokien behin betiko kuota banakatuak gainditzen badute, toki erakundeak behar den itzulketa egingo du ofizioz.

### **36. artikulua. Zerga ezarri eta antolatze erabakiak.**

1. Kontribuzio berezien ordainarazpenak kasu konkretu bakoitzean alde aurretik zerga ezartzeko erabakia hartu beharra eragingo du.

2. Kontribuzio berezien bidez ordaindu behar den obra bat egin edo zerbitzu bat ezarri edo gehitzeko erabakia ezin izango da betearazi horien antolamendu zehatza onartu arte.
3. Antolatzeko erabakia hartzea ezinbestekoa izango da, eta obra eta zerbitzuetarako aurreikusitako kostua, onuradunen artean banatu beharreko kopurua eta banaketarako irizpideak zehaztuta jaso beharko ditu. Hala dagokionean, antolatzeko erabaki zehatzari Kontribuzio Bereziei buruzko ordenantza orokorra ezarri ahal izango zaio, halakorik balego.
4. Kontribuzio bereziak antolatzeko erabaki zehatza hartu eta ordaindu beharreko kuotak zehaztu ondoren, hauek jakinarazi egingo dira, banan-banan zergadun bakoitzari, berau edo bere helbidea ezagunak direnean, eta ediktu bidez ezagunak ez direnean. Interesatuak berraztertzeko errekurtsoa edo, kasuaren arabera, administrazioarekiko diru erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, kontribuzio berezien bidez kotasunari buruz, onura bereziak eskuratzen dituzten pertsonak ordaindu beharreko kostuaren portzentajeari buruz edo esleitutako kuotei buruz.

### **37. artikulua. Kudeaketa eta zerga-bilketa.**

1. Udal eskumeneko obrak eta zerbitzuak toki erakundeak beste baten laguntza ekonomikoarekin burutu edo ematen dituenean, eta, beti ere, kontribuzio bereziak foru arau honetan xedatutakoaren arabera ezartzen direnean, horien kudeaketaz eta bilketaz obrak burutzea edo zerbitzuak ezarri edo gehitzea bere gain hartzen duen erakundea arduratuko da; hala ere, erakunde bakoitzak dagokion eskumena gordeko du, zergak ezarri eta antolatzeko erabakiei begira.
2. Erakunde horietako batek antolatzeko erabaki zehatza onartuko ez balu, indarrrik gabe geratuko litzateke jarduteko batasuna eta bakoitzak bere aldetik hartuko litzuzke dagozkion erabakiak.

### **38. artikulua. Herritarren laguntza.**

1. Obrek ukituriko jabeek edo titularrek zergadunen administrazio elkarteak eratu ahal izango dituzte eta toki erakundeak obrak burutu edo zerbitzuak ezarri edo gehitzea sustatu ahal izango dute, obra edo zerbitzuaren arabera dagokien zenbatekoaz gain, toki erakundeak jarri behar duen zatia ere ordaintzeko konpromisoa bereganatuz, horren finantza-egoerak dagokion ekarpena egitea eragozten dionean.
2. Halaber, toki erakundeak sustatuko obrak egiteak edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeak tartean hartzen dituen jabeek edo titularrek zergadunen administrazio elkarteak eratu ahal izango dituzte kontribuzio bereziak antolatzeko erabakia jendaurrean erakusteko epean.

### **39. artikulua. Zergadunen administrazio elkarteak.**

Aurreko artikuluan aipatutako zergadunen administrazio elkarteak eratzeko erabakia tartean hartutako jabe edo titularren gehiengo osoz hartu beharko da, beti ere gutxienez ordaindu beharreko kuoten bi herenak ordezkatzeko badituzte.

## **IV. KAPITULUA**

### **TRIBUTU ITUNDUETAN, ITUNDU GABEKO TRIBUTUETAN, ETA GAINERAKO SARRERA PUBLIKOETAN, PARTAIDETZA**

### **40. artikulua. Tributu itunduetan, itundu gabeko tributueta eta gainerako sarrera publikoetan partaidetza.**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek partaidetza daukate tributu itunduetan, itundu gabekoetan eta indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritik partaidetza hori izan dezaketen gainerako sarrera publikoetan.
2. Udalerriek Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu itunduetan izango duten partaidetza 41. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik zehaztuko da.

3. Partaidetza horren banaketa 42. artikuluko irizpideen arabera egingo da. Irizpide horiek Ekonomi Itunaren 51. artikuluan aipatzen diren itundu gabeko tributuetan udalerriek izango duten partaidetzan ere ezarriko dira.

#### **41. artikulua. Udalerrien partaidetza tributu itunduetan.**

1. Udalerriek tributu itunduetan izango duten partaidetzak Udal Finantzaketarako Foru Funtza (Udalkutxa) eratuko du. Udalkutxa Bizkaiko Foru Aldundiaren tresna bat da, udalerriei beren eskumenak gauzatzeko eragindako betebeharrak aurre egin diezaieten finantza-baliabideak emateko.
2. Udalerriek zerga itunduetan izango duten partaidetza -Udalkutxa- honako formula hau aplikatuz zehaztuko da:

$$PM\ TCUD = PPM\ UD \times (RD).$$

Non:

- PM TCUD = Udalerriek Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga itunduetan duten partaidetza.
  - PPM = Lurralde Historikoko zerga itunduetan udalerriek -Udalkutxa- duten partaidetzaren ehunekoa: %39,29.
  - RD = Bizkaiko Lurralde Historikoko baliabide erabilgarriak; baliabide horiek Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko 7ko 4/2021 Legen ezarri denarekin bat zehaztuko dira.
3. Era berean, Udal Finantzaketarako Foru Funtza (Udalkutxa) osatuko dute ere Bizkaiko Foru Aldundiari, hala badagokio, zerga-eskumen berriak hartzeagatik udal finantzaketan sorrarazitako finantza-desdoikuntza konpentsatzeko transferitutako kopuruek.
  4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak Udal Finantzaketarako Foru Funtzari (Udalkutxa) dagokion aurrekontuko hornidura jasoko du, aurreko zenbakien emaitza dena.

Urte bakoitzeko urrian, Ekonomi Itunaren kudeaketak eragindako diru-sarrerei dagokienez Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak egindako likidaziorako aurreikuspenekin bat etorrira, Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren likidaziorako aurreikuspenaren berri emango zaie udalei Finantzen Lurralde Kontseiluaren bidez.

5. Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde erkideei egin beharreko ekarpenen behin betiko likidazioan oinarrituta, udalerriek tributu itunduetan daukaten partaidetza eratzen duten elementuen behin betiko zenbatekoa ezarri ondoren, Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren (Udalkutxa) likidazioa egingo da, partaidetza horri dagokion urtearen hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan.
6. Bermatzen da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien baliabideak ez direla izango araubide erkideari buruzko legeria ezarrita legezkiekeenak baino txikiagoak.

#### **42. artikulua. Zerga itunduen banaketa - Udalkutxa -.**

1. Aurrekontuetan Udal Finantzaketarako Foru Fondorako (Udalkutxa) ezartzen den zenbatekoaren 100eko 0,75 aurrekontuan aurreikusteko zailak diren ezustekoetarako gordeko da. Kopuru hau gehitu ahal izango da xede bera eta kopuru bereko gehienezko zuzkidura daukan foru ekarpeneko beste fondo batekin.

Era berean Udal Finantzaketarako Foru Fondoko 100eko 0,15 Udalerrien Elkartea finantzatzeko erabiliko da.

2. Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren (Udalkutxa) zenbatekoa, aurreko 1. zenbakian aipatu diren diru-kopuruak kendu ondoren, udalerrien artean banatuko da urtero, honako arauen arabera:

**Lehenengo.** Bilbori, 2002. urteko behin betiko partaidetza gisa, ehun eta hirurogeita hamaika milioi seihun eta laurogeita lau mila zortziehun eta hirurogeita hamazazpi (171.684.877,00) euroko kopurua esleitu zaio; hurrengo urteetarako Udal Finantzaketarako Foru Fondoak (Udalkutxa) izan lezakeen portzentaje-aldaketa ezarriko zaio.

**Bigarren.** Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren (Udalkutxa) gainerakoa Bizkaiko udalerrien artean banatuko da, Bilbo kenduta, honako irizpide hauen arabera:

1. Udallerri bakoitzak, bere gutxieneko beharrianen arabera, laurogeita bat mila ehun eta hogeita hamazazpi (81.137,00) euroko kopurua jasoko du.
2. Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren (Udalkutxa) gainerakoa honela banatuko da:
  - a) 100eko 80, udallerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera, tributu itunduetan daukan partaidetzari dagokion urtearen aurreko urteko irailaren 30ean onartutako biztanleriaren zifra ofiziala kontuan hartuta.

Ondore hauetarako, biztanleriaren zifra ofizialtzak Toki Erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudiaren 82.2 artikuluan xedatutakoa joko da.

- b) 100eko 13, aurreko atalean aipatutako zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera, udal zerga-ahaleginak haztaturik eta berau kalkulatzeko tributu itunduetako partaidetzari dagokion urtearen azkenaurrekoari dagozkion datuak hartuko dira kontuan.

Ondore hauetarako, ekitaldi bakoitzean Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren arauak zehazten dutena joko da udal zerga-ahalegintzat; zehaztu ere, udalerriek tokiko tributuek ezartzeko moduaren arabera zehaztuko da.

- c) Gainerako 100eko 7, zentro publikoetan dauden Lehen Hezkuntzako, Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko eskola-unitateen kopuruaren arabera, baldin eta horien higiezinak udalerrienak badira, eta tokiko izaera daukaten beste berezitasun batzuen arabera (hondartzak, langabezia eta sakabanaketa).

100eko 60 eskola-unitateen arabera banatuko da eta 100eko 4, 100eko 18 eta gainerako 100eko 18, hurrenez hurren, hondartzen, langabeziaren eta sakabanaketaren arabera banatuko da.

3. Goiko 41. artikuluko 4. paragrafoaren lehen lerroaldean aipatzen den aurrekontuko zuzkidura aurreko 1. eta 2. paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorritik banatuko da, eta konturako emateak egingo dira ekitaldi bakoitzeko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauak ezarritakoaren arabera. Edonola ere, foru arau horrek ezustekoetarako, Udalerrien Elkarterako, Bilborako eta gainerako udalerrietarako aurrekontu-kredituak jasoko ditu.
4. Aurreko artikuluko 5. paragrafoarekin bat etorritik Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren likidazioa egin ondoren, udallerri bakoitzak urte horretako tributu itunduetan daukan partaidetzaren likidazioa egingo da, artikuluko honen 1. eta 2. paragrafoetan araututakoaren arabera.

## **V. KAPITULUA DIRU-LAGUNTZAK**

### **43. artikulua. Diru-laguntzak.**

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek bere obra eta zerbitzuetarako lortzen dituzten edozein motatako diru-laguntzak ezin izango dira erabili emanak izan zireneko helburuetarako ez bada, emakidan erabilera aurreikusita ez daukaten soberakin itzulezinak izan ezik.
2. Aurreko atalean ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, diru-laguntzak eman dituzten erakunde publikoek horiei emandako erabilera egiaztatu ahal izango dute. Egiaztapena egin ondoren, diru-laguntzak eman ziren xederako ez direla erabili ikusten bada, erakunde publiko emaileak horien zenbatekoa itzultzea eskatu ahal izango du edo ukituriko erakundearen eskubideko diren beste diru-laguntza edo transferentziekin konpentsatu ahal izango du, egon daitezken erantzukizunak aparte utzita.

## **VI. KAPITULUA PREZIO PUBLIKOAK**

### **44. artikulua. Kontzeptua.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeek prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte zerbitzuak emateagatik eta udal eskumeneko jarduerak egiteagatik, beti ere foru arau honen 21. artikuluko 1. atalean zehaztutako inguruabarretariko bat ere ematen ez bada.

### **45. artikulua. Baztertutako zerbitzuak eta jarduerak.**

Ezin izango da prezio publikorik eskatu foru arau honen 22. artikuluan zerrendatutako zerbitzu eta jarduerengatik.

### **46. artikulua. Ordaindu beharra dutenak.**

Prezio publikoa duten zerbitzu edo jardueren onurak jasotzen dituztenek ordaindu beharko dute delako prezio publiko hori.

### **47. artikulua. Zenbatekoa.**

1. Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua bete beharko du, gutxienez, prezio publikoen zenbatekoak.
2. Horrela aholkatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arrazoiak daudenean, erakundeak aurreko atalean aurreikusitako mugaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu hauetan behar diren zuzkidurak izendatu beharko dira erakundearen aurrekontuetan, halakorik dagoenean, diferentzia estaltzeko.

### **48. artikulua. Kudeaketa.**

Toki erakundeek autolikidazio araubidean eskatu ahal izango dituzte prezio publikoak.

### **49. artikulua. Kobrantza.**

1. Prezio publikoa ordaintzeko beharra zerbitzua ematen edo jarduera burutzen hasten den unetik sortzen da, baina toki erakundeek zenbateko osoa edo zati bat aldeztu aurretik gordailutzea eskatu ahal izango dute.
2. Prezioa ordaindu beharra duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

3. Prezio publikoen ondoriozko zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

#### **50. artikulua. Finkapena.**

1. Korporazioaren osoko bilkurari dagokio prezio publikoak ezarri edo aldatzea; hala ere, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritik, tokiko gobernu batzordeari eskuordetzeko ahalmena izango du.
2. Toki erakundeek bere erakunde autonomiadunei egotzi ahal diete erakundeok beren kargura dituzten zerbitzuei dagozkien prezio publikoak finkatzeko eskumena, baldin eta prezio publiko horiek toki erakundeak ezarritakoak badira. Ezin izango dute hori egin prezioek kostua betetzen ez dutenean. Egozpen hori partzuergoen kasuan ere egin ahal izango da, era berdinean, horien estatutuetan besterik jasota ez badago.

Kasu bietan, erakunde autonomiadunek eta partzuergoek proposamenaren eta prezio publikoek zerbitzuaren kostua betetzen dutela erakusten duen ekonomi egoeraren kopia bidaliko diote beren gainera dagoen toki erakundeari.

### **VII. KAPITULUA KREDITU ERAGIKETAK**

#### **51. artikulua. Aplikazio eremua.**

Foru arau honetan ezarritakoaren arabera eta erakunde eskudunek ezarriko dituzten xedapenen barruan, toki erakundeek, beren erakunde autonomiadunek, enpresa-erakunde publikoek eta menpeko merkataritzako sozietateek kreditu eragiketak itundu ahal izango dituzte, edozein modalitatetan, epe laburrera zein luzera.

Foru arau honen ondoretarako, menpeko merkataritzako sozietateak dira kapitalean edo sozietatearen funtsean toki erakundearen 100eko 50 baino gehiagoko partaidetza daukatenak.

#### **52. artikulua. Helburua, tresnak eta bermeak.**

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren erakundeek, beren inbertsioak finantzatzeko zein aurretik dauden eragiketak osorik edo zati batez ordeztzeko, epe luzerako kreditu publikora edo pribatura jo ahal izango dute, edozein modalitatetan.
2. Kreditua honela bideratu ahal izango da:
  - a) Zor publikoaren jaulkipenaren bidez.
  - b) Maileguen edo kredituen kontratazioaren bidez.
  - c) Kreditu publiko edo pribaturako beste edozein apelazioren bidez.
  - d) Aurretik dauden eragiketak osorik edo zati batez bihurtu eta ordeztuz.
3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluko 2. paragrafoaren azken lerroaldean eta 49. artikuluko 4. paragrafoan ezarritako dauden salbuespenetan, kreditua finantza-entitateekin itundutako mailegu edo kredituen bidez soilik bideratu ahal izango da.
4. Erakunde autonomiadunek, enpresa-erakunde publikoek eta menpeko merkataritzako sozietateek itundutako mailegu edo kreditu eragiketak dagokion korporazioak bermatu ahal izango ditu, sozietatearen kapitalean 100eko 30 baino gehiagoko partaidetza-kuota bat daukanean.

Abalak ezin izango du sozietatean daukan partaidetza baino handiago den kredituaren portzentaje bat bermatu.

5. Tokiko korporazioek, beren interesentzat komenigarria dela ikusita eta beren eskumeneko obrak burutzea eta zerbitzuak ematea errazteko, obra edo zerbitzuetarako kontratatzen dituzten pertsona edo erakundeek edo dagokion erakundeari onurak ekarriko dizkieten emakidak ustiatzen dituztenek ituntzen dituzten kreditu eragiketetarako abala eman ahal izango dute, eragiketen izaera edozein izanda ere, eta beti eragiketa bakoitzerako berezita.
6. Aurreko bi paragrafoetan aipatutako eragiketak alde aurreko fiskalizazioaren menpe egongo dira eta bermatutako maileguaren zenbatekoa ezin izango da erakundeak berak obra edo zerbitzua kredituaren bidez zuzenean finantzatuta sortutako zenbatekoa baino handiagoa izan.

### **53. artikulua. Kreditu eragiketak ituntzea.**

1. Foru arau honetan jasota dauden kreditu motetatik edozein ituntzeko indarrean dagoen behin betiko aurrekontuan sartu beharko da.
2. Edozein eragiketa itundu edo aldatzea kontu-hartzailetzaren txostena jaso ondoren onartuko da. Txosten horretan toki erakundeak eragiketek sortzen dizkieten betebeharrei denboran aurre egiteko daukan ahalmena aztertuko da bereziki.
3. Toki korporazioek egiten dituzten kreditu-eragiketa guztiak eta ematen diren abal edo berme publiko mota guztiak finantza- neurritasunaren printzipioaren pean egongo dira. Finantza-eragiketek arriskua eta kostua murrizteko bete behar dituzten baldintzak lirakete finantza-neurritasuna.

Finantza-tutoretzaren arloan eskumenduna den Saileko tituludunak emandako Foru Aginduaren bidez ezarriko dira eragiketek bete beharreko baldintzak.

### **54. artikulua. Epe laburrerako kreditu eragiketak.**

Diruzaintzako beharrian iragankorrei aurre egiteko, toki erakundeek epe laburrerako kreditu eragiketak itundu ahal izango dituzte, urte baterako gehienez, eta guztiek batera aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik likidatutako sarreraren 100eko 30 ez badute gaintitzen, eragiketa ekitaldi horretako aurrekontua likidatu aurretik egiten denean izan ezik; ordu azken honen aurreko ekitaldiko likidazioa hartuko da aintzat. Ondore hauetarako, honakoak joko dira epe laburrerako kreditu eragiketatzat, besteak beste:

- a) Ekonomi ekitaldi bakoitzean sorrarazi eta errolda edo matrikula bidez likidatutako zergen bilketako emaitzen kontura finantza-entitateetatik jasotzen diren aurrerakinak, zerga-bilketa kudeatzeko organoen bitartekotzarekin edo hori gabe.
- b) Finantza-entitateek diruzaintzako desfase iragankorrak betetzeko emandako maileguak eta kredituak.
- c) Urte bat baino gutxiagorako zor-jaulkipenak.

Toki erakundeen eta beren erakunde autonomiadunen diru-sarrera arruntak diru-sarreraren egoeraren lehenengo kapitulutik bosgarrenera, biak barne, likidatutako eskubideak dira.

### **55. artikulua. Epe luzerako kreditu eragiketak baimentzeko araubidea.**

1. Azken ekitaldiko aurrekontuen likidazioa, emaitza arruntak eta jarduera arruntaren emaitzak islatzen dituzten finantza-orrietatik aurrezki garbi negatiboa ondorioztatzen denean, ezin izango da epe luzerako kreditu eragiketa berririk itundu Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunen baimenik gabe, kontratuko baldintzak aldatzen dituzten eragiketak edo, hirugarren batzuen bitartekotzarekin edo gabe, berme osagarriak gehitzen dituztenak barne. Egoera horretan ezin izango da abalik eman ere, ezta toki erakundeek, beren erakunde autonomiadunek, enpresa-erakunde publikoek eta menpeko merkataritzako sozietateek lehenago itundutako kreditu eragiketak ordeztu ere, baldin eta gehienbat



merkatuko diru-sarrerekin finantzaten ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak sortzen badituzte.

Ondore hauetarako, toki erakundeen eta beren erakunde autonomiadunen aurrezki garbia izango da diru-sarreren orriko lehenengo kapitulutik bosgarrenera -biak barne- likidatutako eskubideen eta gastu-orriko lehenengo, bigarren eta laugarren kapituluek onartutako betebeharren arteko diferentzia, proiektatutako eragiketaren nahiz erakundearen mailegu eta jesapen bakoitzaren eta hirugarrenei abalatu eta itzultzeke daudenen amortizazioaren urteko kopuru teoriko baten zenbatekoa gutxitua.

Amortizazioaren urteko kopuru teorikoaren zenbatekoa, epe luzera itundutako mailegu bakoitzarena eta korporazioak abalatu eta itzultzeke daudenak, baita proiektatutako eragiketarena ere, termino konstanteetan zehaztuko da, interesak eta amortizazioaren urteko kuota sartuta, eragiketaren modalitatea eta baldintzak edozein izanda ere.

Enpresa-erakunde publikoetan eta tokiko merkataritzako sozietateetan aurrezki garbia jarduera arruntaren emaitzek osatzen dute, maileguen edo jesapenen interesak kenduta eta amortizazioaren urteko kopuru teoriko bat gutxituta, aurreko lerroaldean azaldu bezala.

Aurrezki garbian ez dira sartuko onartutako betebeharrak, kredituen aldaketek eragindakoak, diruzaintzako geldikin likidoarekin finantzatu badira.

Urteko teorikoak kalkulatzeko ez dira sartuko ondasun higiezinaren gaineko hipotekekin berमतutako kreditu eragiketak, berme horrek tartean hartutako mailegu zatiaren proportzioan.

Erakunde autonomiadunaren, enpresa-erakunde publikoaren edo tokiko merkataritzako sozietatearen jardueraren xedea etxebizitzak eraikitzea bada, aurrezki garbia azken bi ekitaldietako batez bestekoa hartuz kalkulatu da.

Aurrezki garbia negatiboa denean, korporazioaren osoko bilkurak finantzak onbideratzeko plan bat onartu beharko du, gehienez ere hiru urteko epean burutu beharko dena. Plan horretan kudeaketa, zerga, finantza eta aurrekontuen arloko neurriak hartuko dira, gutxienez erakundearen, erakunde autonomiadunaren edo merkataritzako sozietatearen aurrezki garbi negatiboa zerora doitzeko aukera emango dutenak. Plan hori dagokion baimen eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

2. Aurreko 1. paragrafoan aipatutako organoen baimena beharko dute, era berean, edozein motatako epe luzerako kreditu eragiketek, abalek eragindako arriskua barne, epe labur eta luzerako indarrean dauden kreditu eragiketen kapital biziaren bolumen osoak, proiektatutako eragiketaren zenbatekoa sartuta, aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten 100eko 110 gaintzen duenean, edo, zenbaketa urteko lehen seihilekoan egin behar bada eta aurreko urteko ekitaldiko aurrekontua artean likidatu ez bada, aurrekoaren aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten 100eko 110 gaintzen duenean, artikulua honen 1. atalean aipatutako erakundearen kontabilitateko egoera-orri finkatuetatik ondorioztatutako zifren arabera.

Aurreko lerroaldean araututako portzentajea indarrean dauden kreditu eragiketak, epe laburrerako zein luzerakoak, aintzat hartuta kalkulatu da, eragiketa horiek balantzean sartzeko erabilitako irizpide berdinekin baloratuko direlarik. Abalatuak eragiketari aurreko irizpide bera aplikatuz zenbatuko da abalek eragindako arriskua.

3. Edonola ere, aurreko ekitaldian, edo, halakorik ezean, ekitaldi horren aurrekontua likidatu ez delako, horren aurrekoan, likidatutako diru-sarrera arrunten %10 gaintzen duen zenbatekodun epe luzerako kreditu eragiketa berriak ituntzeko, nahitaezko txosten bat - loteslea izango ez dena- eskatu beharko zaie Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunei. Txosten horretan zorpetze berriak erakundearen aurrekontuetan izango duen eragina aztertuko da. Txosten hau eragiketa hauek ituntzeko organo eskudunari bidaliko zaio.

4. Ez da aurkeztu beharko aurreko 1. paragrafoan aipatzen den finantzak onbideratzeko plana xedetzat lehenago itundutako epe luzerako kreditu eragiketak foru arau honetan ezarritakoaren arabera ordeztea daukaten kreditu eragiketen baimena eskatzeko, ordezipen hori eragiketa horien finantza-zama edo arriskua murrizteko egiten denean, muga eguneratzeke dauden horietatik ondorioztatutako betebeharrei dagokienez.
5. Aurreko 1. eta 2. paragrafoetan ezarritakoaren kalterik gabe, 75.000 biztanle baino gehiago dituzten toki erakundeek, horietan araututako baimenen ordeze, aurrekontu-finkapenerako egitasmo bat aurkeztu ahal izango dute, organo eskudunak onar dezan.

Aurrekontu-finkapenerako egitasmo horretan toki erakundeak, hurrengo hiru ekitaldietarako finantzazkoa ez den defizitaren gehienezko mugari eta zorpetzearen gehienezko zenbatekoari dagokienez, osoko bilkurak onartuta hartutako konpromisoa jasoko da.

Zorpetze eragiketetarako baimena emateko eskumena daukana izango da aurrekontu-finkapenerako egitasmoa onartzeko organo eskuduna. Onartu aurretik Bizkaiko Foru Aldundiak txostena eman beharko du. Aurrekontu-finkapenerako egitasmoaren barruan artikulua honetako 6. paragrafoan jasotako eragiketaren bat badago, baimena Bizkaiko Foru Aldundiak eman beharko du.

6. Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena beharko dute epe laburrerako eta luzerako kreditu eragiketek, abalen emakidak eta kontratu-baldintzak aldatu edo berme osagarriak gehitzen dituzten gainerako eragiketek, hirugarren bitartekotzarekin edo hori gabe eginda, honako kasuetan:
  - a) Kanpoan edo egoitza Espainian ez daukaten finantza-entitateekin formalizatzen diren eragiketak, proiektatutako eragiketaren kapitala zehazteko erabili den dibisa edozein izanda ere. Kasu honen barruan dago gehienbat merkatuko diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak sortzen dituzten toki erakunde, beren erakunde autonomiadun eta menpeko merkataritzako entitate eta sozietateei emandako kredituetan entitate egoiliarrek daukaten partaidetzak finantza-entitate ez-egoiliarrei lagatz
  - b) Zor jaulkipenen edo beste edozein kreditu publikoren bidez bideratzen direnak, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean ezarritakoaren kalterik gabe.

Aurreko a) idatz-zatian jasotakoari dagokionez, ez dira kanpoko finantzaketatzat joko eurotan izendatuta eta Europar Batasuneko herrien lurralde eremuaren barruan egiten direnak eta herri horietakoren batean egoitza daukaten finantza-entitateekin egiten direnak. Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiari eragiketa horien berri eman beharko zaio alde zuzenetik.

7. Artikulu honetan ezarritako arauarekin bat etorriz, zorpetze eragiketa ituntzeko baimena behar denean, eragiketa horri lotutako gastu-konpromisoak ezin izango dira irmoak izan harik eta lortu beharreko baimena lortu arte.
8. Toki erakundeak kreditua lortzeko izango dituzten mugak ezarri ahal izango dute Bizkaiko Foru Aldundiko Aurrekontuen foru arauak urtero-urtero, ekonomi politika orokorra dela medio, egoera horretan hori egitea aholkatzen duten inguruabarrak ematen direnean.
9. Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunek kapitulu honetan araututako eragiketen berri izan beharko dute arau ezarritako eran.

#### **56. artikulua. Erakunde autonomiadunen, enpresa-erakunde publikoen eta merkataritzako sozietateen epe luzerako kreditu eragiketak.**

Erakunde autonomiadunek, enpresa-erakunde publikoek eta menpeko merkataritzako sozietateek, epe luzerako kreditu eragiketak itundu aurretik, korporazioaren osoko bilkuraren baimena eta kontu-hartzailetzaren txostena beharko dute.

### **III. TITULUA**

## **UDALEZ GAINDIKO ERAKUNDEAK**

#### **57. artikulua. Udalez gaindiko erakundeen ogasuna.**

Udalez gaindiko erakundeen ogasuna euren Estatutuetan edo eratze arauetan jasotako baliabideek osatuko dute, foru arau honetan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoaren esparruan.

#### **58. artikulua. Udalez gaindiko erakundeen baliabideak.**

1. Mankomunitateek eta udalez gaindiko gainerako erakundeek tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte, foru arau honetan Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrientzat ezarritako terminoetan.
2. Era berean, udalez gaindiko erakundeek, beren osakide edo atal diren erakundeen ekarpen arruntez gain, honako baliabideek erabili ahal izango dituzte:
  - a) Beren ondaretik etorritako sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.
  - b) Beren eskumenen eremuan izandako isun eta zehapenen emaitzak.
  - c) Diru-laguntzak.
  - d) Kreditu eragiketen emaitzak.
  - e) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.
3. Artikulu honen aurreko paragrafoetan ezarritakoaren ondoretarako, foru arau honen II. titulua eta berau garatzen duten xedapenak ezarriko dira, kasu bakoitzari dagozkion berezitasunekin.
4. Udalez gaindiko erakundeen eta partzuergoen finantza-araubideak ez du aldatuko horiek osatzen dituzten udalerriena.

#### **59. artikulua. Partzuergoen baliabideak.**

1. Toki erakundeek beraiek ezarritako prezio publikoen finkapena egotzi ahal izango diete eratu dituzten partzuergoei, hauek bere kargura dituzten zerbitzuei dagozkienean, prezioek zerbitzuen kostua betetzen ez dutenean izan ezik eta beren estatutuetan besterik esaten ez bada.
2. Proposamenaren eta prezio publikoek zerbitzuaren kostua betetzen dutela erakusten duen ekonomiazko egoera-orriaren kopia bidaliko diete Partzuergoek beren kide diren erakundeei.
3. Toki erakundeek eskuordetzan eman ahal izango diete eratu dituzten partzuergoei hauek bere gain hartutako zerbitzuak emateagatik toki erakundeek ezarritako tasen kudeaketa, likidazioa eta bilketa, bidezkoak diren lankidetzaren formulen bidez. Halaber, partzuergoek, osatzen dituzten erakundeen ekarpen arruntez gain, honako baliabideak erabili ahal izango dituzte ere:
  - a) Beren ondaretik etorritako sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.
  - b) Diru-laguntzak.
  - c) Kreditu eragiketen emaitzak.
  - d) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

#### **60. artikulua. Kontribuzio bereziak.**

1. Udalez gaindiko erakundeek, udalerrri batean edo gehiagotan eragina daukaten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo gehitzeagatik, kontribuzio bereziak ezartzen dituztenean, haien gobernu-organo gorenak zergadunen interes zuzena eta udalerrri baten edo gehiagoren interes bateratua bereizi ahal izango ditu, obrak tartean hartzen duen zonaldea zehazterakoan edo zonalde bakoitzerako dakarren onura berezia zehazterakoan.
2. Aurreko atalean aipatutako kasuan, erakunde horietan sartuta dauden ukituriko udalak zergadun izango dira dagokien kuota banakatuak ordaintzeko, kuota udalek beraiek bilduko dituztelarik, udal tributu hau arautzen duten arauekin bat etorritik.
3. Udalei zergadun gisa ezarritako kuota bateragarri izango dira udalek sartuta daudeneko erakundeen herri lan, instalazio edo zerbitzuei eman dizkieten diru-laguntza, sorospen edo beste edozein lankidetzatza motak eragindako gastuen ondorioz udalek beraiek ezar ditzaketenekin.

### **IV. TITULUA TOKI ERAKUNDE TXIKIAK**

#### **61. artikulua. Toki erakunde txikien baliabideak.**

1. Toki erakunde txikiek tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak ezarri ahal izango dituzte, erakunde horiek arautzen dituzten legezko xedapenetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta sartuta daudeneko udalerrriaren baliabideetan ere parte hartu ahal izango dute.
2. Era berean, erakunde hauek, aurreko atalean ezarritakoaren barruan, honako baliabideak erabili ahal izango dituzte:
  - a) Beren ondaretik etorritako sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.
  - b) Diru-laguntzak.
  - c) Beren eskumenen eremuan izandako isun eta zehapenen emaitzak.
  - d) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.
3. Erakunde hauei foru arau honen II. titulua eta berau garatzen duten xedapenetan xedatutakoa ezarri ahal izango zaie, kasu bakoitzari dagozkion berezitasunak kontuan hartuta.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **Lehena. Arauen aipamenak.**

Ordenantzetan eta beste xedapen batzuetan Toki Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren inguruan egiten diren arau-aipamenak foru arau honi dagozkion aginduei buruzkoak direla ulertuko da.

#### **Bigarrena. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 203. artikuluko 1. paragrafoaren c) idatz-zatia aldatu da eta honela idatzita geratu da:

«c) Foru arau honetako 92. eta 93. artikuluetan ezarritako informazioa eman beharra betetzeko oro har eskatzen diren aitopenetan 150 euroko isun finkoa jarriko da aitopenean pertsona edo erakunde bati buruz eman beharreko datu edo datu-multzo bakoitzeko. Isuna 400 eurokoa izango da gutxienez eta 20.000 eurokoa gehienez.».

## **Hirugarrena. Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren zerga-oinarriaren txikipena.**

Ekainaren 22ko 3/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko otsailaren 15eko 2/1989 Foru Arauaren testu bateginari xedapen iragankor berri bat gehitu zaio, 2005eko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena. Honakoa dio:

«Bosgarren xedapen iragankorra. Euskal herri administrazioek jaulkitako zorpetzea eskuratzearen ondorioz zerga-oinarria txikitzeko araubidea.

Bat. Foru arau honen 19. artikuluko 1. paragrafoak aipatzen duen edozein zorpetze motaren titularrek xedapen iragankor honetan ezarritako araubidea aplikatzea aukeratu ahal izango dute, dagozkien tituluen amortizazioaren ondorioz lortutako diru-kopuruak ezin badituzte agindu horretan araututako zerga-oinarriaren txikipena ezartzen jarraitzeko aukera ematen dieten beste batzuetan berrinbertitu.

Araubide bera ezarriko zaie foru arau honen 19. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren Talde Inbertsioko Erakundeetan akzioak edo partaidetzak dituzten titularrei, erakunde horrek aipatutako artikuluko horretan ezarritako betekizunak betetzeari uzten dionean.

Bi. Xedapen iragankor honetan ezarritako araubidea aplikatzeko honako betekizunak bete beharko dira:

a) Titularrak bere ondarean tituluak, akzioak edo partaidetzak mantendu izana, noiz eta zor publikoaren tituluak amortizatu direneko dataren edo Talde Inbertsioko Erakundeak agindu horretan ezarritako betekizunak betetzeari utzi dion dataren aurre-aurreko urtean zehar.

b) Tituluen amortizazioarengatik jasotako diru-kopuruak edo, hala dagokionean, Talde Inbertsioko Erakundeen akzio edo partaidetzak besterentzeagatik lor daitezkeenak berrinbertitzeko ezintasuna izatea, merkatuan eskaintzarik ez dagoelako zerga-oinarriaren txikipena ezartzeko aukera ematen duten beste zorpetze-titulu batzuetan edo Talde Inbertsioko Erakundeen akzio edo partaidetzetan.

c) Aurreko idatz-zatian aipatzen diren kopuruak kausatzaile izango denekoaren ondarean Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortze-datara arte mantendutako edozein ondasun edo eskubideetan berrinbertitzea, hala dagokionean, ondasun edo eskubide ezberdinetan berrinbertitu ahal izango direlarik jarraian.

d) Xedapen iragankor honetan xedatutakoa aplikatzea aukeratu dutela jakinaraztea eta lortutako diru-kopuruaren berrinbertsioen xede izan diren ondasun edo eskubideen berri ematea Zuzeneko Zergen Zerbitzuko Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Atalari, hiru hilabeteko epean, tituluen amortizazioa gertatzen denetik edo unean uneko Talde Inbertsioen Erakundeak zerga-oinarriaren txikipena aplikatzeko baldintzak bete ez dituenetik zenbatuta.

Komunikazio horretan arategian ezarritako betekizunak eta inguruabarrak betetzeari uzten zaion egunari dagozkion Talde Inbertsioko Erakundeak tituluen amortizazio-balioa edo akzio edo partaidetzaren likidazio-balioa agerraraziko da, betetzeari buruzko agiri bidezko justifikazioak aurkeztu beharko direlarik.

Hiru. Titularrak xedapen iragankor honetan xedatutakoa aplikatzea aukeratzen duenean, bere heriotzaren ondorio diren "mortis causa" eskuraketek foru arau honen 19. artikuluko 1. atalean arautua dagoen zerga-oinarriaren egiteko txikipena izango dute, aurreko c) letran xedatutakoarekin bat etorriz zerga-administrazioari jakinarazi zaion zenbatekoraino.

Zenbateko hori eguneratu egingo da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauaren 43. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortze-datatik indarrean dagoen koefizientearen ezarritako, xedapen iragankor honetan xedatutakoa aplikatzea aukeratu deneko urtearen arabera.

Txikituko den zerga-oinarriaren zenbatekoa kausadunen artean banatuko da, proportzionalki, zerga-administrazioak kausatzaileak zerga-oinarriaren txikipena aplikatzeko eskubidea kausadun guztiei edo horietako bati beste proportzio batzuetan banatzeko borondatea zeukala sinesgarriro jasota daukanean izan ezik.

Lau. Xedapen iragankor honetan aipatutako betekizunak eta inguruabarrak 2005eko ekitaldian zehar eman badira, Bi ataleko c) letran adierazitako komunikazioa egiteko epea 2006ko martxoaren 31n amaituko da.» .

## **Laugarrena. Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea.**

Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari buruzko maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen xede diren trenbide-azpiegituraren administrazioaren ondare-mutazio, xedemate, atxikipen eta egozpen egintzei Sozietateen gaineko Zergaren ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren VIII. tituluko X. kapituluan ezarritako zerga-araubidea aplikatuko zaie.

### **Bosgarrena. Tasen hobariak.**

Tokiko erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte foru arau honen II. tituluaren III. kapituluaren 3. atalean ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek salbuespenezko edo premiazko arrazoiek eragin beharko dituzte, eta bereziki COVID-19ak eragindako osasun-krisiak.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehena. Egokitzeko epea.**

Toki erakundeek 2006ko uztailaren 1era arteko epea izango dute euren arautegia foru arau honetan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrari dagokionez, ezarritakoaren arabera egokitzeko beharrezkoak diren ordenantzak onartzeko.

### **Bigarrena. Berrikuspena administrazio-bidean.**

Berraztertze errekurtsoa ebazteko epe berria ezarriko zaie foru arau hau indarrean sartzen den datatik aurrera jartzen diren errekurtsoei. Lehenago jarritakoei data hori baino lehenagoko arautegia ezarriko zaie ebatzi arte.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

### **Bakarra. Arauen indargabetzea.**

1. Indargabetuta geratu dira foru arau honetan xedatutakoaren aurkako lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta bereziki Toki Ogasunak arautzen dituen ekainaren 30eko 5/1989 Foru Araua.
2. Xedapen indargabetzaile honetan ezarritakoak ez die kalterik eragingo Toki Ogasunek honen indarraldian sorrarazitako betebeharrei dagokienez dauzkaten eskubideei.

## **AZKEN XEDAPENA**

### **Bakarra. Indarrean jartzea.**

Foru arau hau 2006ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2005eko abenduaren 16an,

Bizkaiko Batzar Nagusietako lehenengo idazkaria,

NEKANE ALONSO SANTAMARIA.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak,.

ANA MADARIAGA UGARTE.